

IRABAZI-ITURRIAK

Hornitzaileari eskaria egiteko garaian, kantitate handiko eskaria egiten saiatuko gara merkeagoa aterako zaigulako, denbora tarte berdinean eskari txiki eta asko egin beharrean. Horrela, garraio kostuak ere murriztuko ditugu. Horrez gain, produktuei prezioak ezartzerako garaian bakoitzaren kalitateari erreparatuko diogu, esaterako, telazko poltsak eskuz eginikoak direla aintzat hartuz eta horiek egiteak suposatzen duen lana eta denborak meritu handiagoa duela uste dugu, bere produkzio prozesua makinaz baliaturik egiten duen enpresa baten poltsak baino. Horregatik, eskuz eginiko poltsen prezioa ere altuago izango da. Gainera, diru-sarrerak bi motatakoak izan daitezkeela kontuan izanik, gure kasuan ordainketa bakarreko diru-sarrerak izango lirateke, erosketa egiterako garaian behin erosi eta iraupen luzerako produktua izango dugula. Aldiz, errepikaria izango litzateke, baldin eta hilero edo finkatutako epealdi batzuen barruan ordainketa egitera behartuak izango bagina.

Publizitatea ere bezeroak erakartzeko teknika gisa erabiliko dugun tresna da. Web orrian informazioa zabaltzeaz gain, sare-sozialetan eta herrian zehar kartelak atxikiko ditugu.

Prezioen sailkapena egiterako garaian, bi mota desberdintzen dira. Alde batetik, finakoak, aldagai estatikoen arabera aurredefinituta daudenak. Gure kasuan, aurrez aipatu bezala produktuen kalitateari garrantzia emango diogu eta horregatik, nahiz eta produktu bera izan prezioen artean aldakuntza eman daiteke. Esaterako, konpresen kasuan, saltzen ditugunak telazkoak direnez arruntak baino garestiagoak izango dira. Horrez gain, bolumena ere aintzat hartuko dugu, gero eta gehiago erosiz gero orduan eta merkeagoa izango da prezioa. Beste aldetik, prezio dinamikoak daude eta hauek, merkatuaren egoeraren arabera aldatzen dira. Esaterako, merkatuko eskaintza eta eskariaren arabera finkatuko ditugu prezioak. Hau da, produktu baten eskaria handitzen bada haren prezioa igo egingo dugu eta aldiz, eskaria txikitzen bada eskaintza ere txikituko dugu eta prezioen beherakada emango da.